

Arteei, kultura-industrieari eta sormen-industrieari buruzko estatistikak (2021)

Datuen laburpena

2023ko abendua






Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura


Aurkibidea

1. Ikuspegi globala	3
2. Azterketa sektoreka.....	5
Agenteak.....	5
Diru-sarrerak.....	6
Enplegua	7
3. Zeharkako irakurketak.....	9
80/20 (diru-sarrerak).....	9
80/20 (enplegua).....	10
Emakumeen ehunekoak.....	11

1. Ikuspegi globala




Arteei, Kultura-industriei eta Sormen-industriei buruzko Estatistikaren datu nagusiek erakusten dutenez, 2021ean **1.026 agenteak** osatzen dute panorama globala, **747 milioi euroko** diru-sarrerak dituzte, eta **7.643 langileri** ematen diete lana.



- Estatistikako **agenteen % 68 kultura-sektorekoak** dira; **diru-sarrera guztien % 56,8** sortzen dute, eta estatistikako pertsona guztien **% 49,7ri** ematen diote lana.
- Bestalde, agenteen **% 32 sormen-industrietakoak** dira; **diru-sarrera** guztien **% 43,2 biltzen dute**, eta estatistikako pertsona guztien **% 50,3ri ematen diote lana**.
- Sektorearen **balantze ekonomikoa**, oro har, **positiboa** da. Sormen-sektorearen balantze osoa 36,9 milioi eurokoa da, kultura-sektorearen bikoitza baino gehiago (14,8 milioi).
- **Enpresa bakoitzeko langileen ratioa 7,4 pertsonakoa da** batez beste. **Sormen-sektoreetan**, 11,7 langilek lan egiten dute enpresa bakoitzeko; **kultura-sektoreetan**, berriz, 5,4k.


2. Azterketa sektoreka

Agenteak




Datuak sektoreka aztertuz gero, ikusten da arte eszenikoen sektorea dela agente-bolumen handiena duena, eta ondoren datoz ikus-entzunezkoak, musika, liburua eta publizitatea. Kultura-sektoreek dute agente-kopuru handiena, salbu ikusizko arteak. Modaren eta bideojokoen sektoreek dute agente-bolumen txikiena.

Diru-sarrerak




Diru-sarrerei dagokienez, bi arlo nabarmentzen dira: ikus-entzunezkoak (kontuan hartu behar da telebista publikoaren eragina) eta publizitatea, biak ere beren sektoretako batezbestekoen gain-gainetik. Sektoreka, kultura-industrietan, ikusizko arteek dute negozio-bolumen txikiena; sormen-industrietan, berriz, bideojokoek.

Enplegua



Enpleguan, ikus-entzunezkoak, publizitatea eta hizkuntzaren industriak gailentzen dira, batezbestekoen oso gaitetik. Ikusizko arteak daude kultura- eta sormen-sektoreetako enpleguaren maila apalenetan.




Lurraldeka, Bizkaia nabarmentzen da gainerakoen aurretik, bai agenteen bolumenari dagokionez, bai diru-sarrerei eta enpleguari dagokienez.

Datuak kultura- eta sormen-eremuaren arabera aztertuz gero, alde txiki batzuk ikusten dira. Kultura-industriek agente gehiago dituzte Bizkai eta Gipuzkoan, sormen-industriek baino; diru-sarrerak eta enplegua proportzionalki txikiagoak dira Gipuzkoan, eta Bizkaian gailentzen dira.

Sormen-industriek proportzio handiagoa erakusten dute lurralde-banaketan, agenteen, diru-sarreraren eta enpleguaren mapen artean.

3. Zeharkako irakurketak

80/20 (diru-sarrerak)




*Diskoetxe edo kontzertu-aretoak alde batera utzi dira, datu-babesa tarteko, agenteen % 20ra murriztu baita begirada.

Datuak 80-20 arauaren edo Paretoren printzipioaren arabera aztertuz gero (helburua da aldeak bilatzea, ebaki bat eginez sektore bakoitzean diru-sarrerak handienak dituzten agenteen % 20aren eta gainerako % 80aren artean), ikus daiteke agente-bolumen txiki batek biltzen dituela diru-sarrerak gehienak, sektore guztietan. Lau kasutan, sektoreko negozio-bolumenaren %

80 gainditzera ere iristen dira: arte-galeriak, musika-sustatzaile pribatuak, musika-programatzaile publikoak eta ikusizko arteen erakusketa-guneak.

Enpleguaren kasuan ere kontzentrazio nabarmena dago, baina asimetria ez da hain nabarmena. Agenteen % 20k musika-programatzaile publikoen eta hizkuntza-industriaren kasuan soilik gainditzen du enpleguaren % 80.


80/20 (enplegua)



■ % 20ko lerroa ■ Kultura-sektoreak ■ Sormen-sektoreak

*Diskoetxe edo kontzertu-aretoak alde batera utzi dira, datu-babesa tarteko, agenteen % 20ra murriztu baita begirada.

Emakumeen ehunekoak



Enplegu-datuak are gehiago xehatuz gero, eta genero-ikuspegia kontuan hartzen bada, sektore feminizatuenak eta maskulinizatuenak ikus daitezke. Batez ere, modak ematen die lana emakume askori. Ikusizko arteek, hizkuntzaren industriek, liburuaren sektoreak eta publizitateak ere emakume gehiago hartzen dituzte plantillan. Musikan eta, batik bat, bideojokoetan, presentzia txikiagoa dute.